

Aitzin-euskararen kontsonantismoa

MIKEL MARTÍNEZ ARETA*

1. GALDEKIZUNAREN AURKEZPENA

Azentuarekin batera, aitzin-euskararen kontsonantismoa euskal hizkuntzalaritza diakronikoaren gairik eztabaidatuena izan da. Iragan den mendeko 50eko hamarkadan Martinetek eta Mitxelenak euskal hizkuntzalaritzan estrukturalismoaren azterbidea sartu zituztenean, batik-bat bi gai hauek izan zituzten helburu nagusi.

Martineten zein Mitxelenaren berreraiketak ez dagozkie garai zehatzei, hizkuntzaren fase estrukturaleri baizik. Nolabait, hizkuntzalari hauek indoeuropar hizkuntzalaritzan aplikatzen zen metodologia euskal fonologiaren azterketari aplikatu zioten; Martinetek leherkariei eta txistukariei, Mitxelenak kontsonante-sistema osoari. Nolanahi ere, honek ez du haren hipotesia erabat ezeztatzen, baizik eta bere sistemarekin alderaturik fase zaharrago bat egozten dio.

Euren aldetik, Trasken (1985) eta Hualderen (1999) hipotesiak ez dira berez berreraiketak, Mitxelenaren (1957) sistemaren zehaztapan fonetikoak baizik. Hualderena leherkariei baino ez dagokie.

Artikulu honetan, Mitxelenaren teoriatik abiatuz garai zaharrago batean hizkuntzak nolako kontsonante-sistema izan zezakeen marraztzen saiatuko gara. Ez da hau norabide honetan burutzen den lehen saiakera, Lakarra (1995 eta ondorengo lanak) izan baita bide hau urratu duena. Baina euskalari honek batik-bat erroaren egituraren jardun du. Hemen bere teoria kontsonantismora aplikatzen saiatuko gara, azkenik gertatzen zaigun emaitzatik kontsonante-inbentario bat postulatzeko. Berreraiketa hau, beraz, bigarren gradu-

* UPV-EHU

koa izango da, beste berreraiketa baten –Mitxelenaren, hain zuzen– berreraiketa baita. Ez dago esan beharrik honek dakarren espekulazio-maila oso altua dela.

Artikulu hau Lakarrak zuzendutako gure tesi doktoralaren laburpen bat da (ik. Martínez Areta 2006). Dena den, dardarkariak eta sabaikariak gure azterketatik at utzi ditugu. Hauen inguruko arazoak korapilatsuagoak dira, ez daude galdekizunaren muin-muinean eta artikulua alferrik luzatuko lukete. Aipatu lanean xeheki arakatu ditugu.

2. AURREKO HIPOTESIAK

2.1. Martinet (1950, 1955)

Leherkarietarako dagokienez, Martinetek Gavelen erronboan agertzen den egitura sintagmatikotik abiatzen da (koronalen bitartez irudikatzen dugu):

$$\begin{array}{ccc} & -t(h)- & \\ d- & & -t \\ & -d- & \end{array}$$

Honela, hitz-hasieran leherkari ahulak –edo ahostunak– soilik ager daitezke. Hitz-amaieran, bortitzak –edo ahoskabeak– soilik. Bokalaratean, ordea, oposaketa izan daiteke. Nolanahi ere, Martineten iritziz B. *ide / adis-kide, alde / ar-talde, Heguy / -tegi*, eta honelako txandaketen arabera, erronboaren fasea baino lehen oposaketa zuen aurreko fase bat izan da. Handik aitzina, hitz-hasierako leherkari bortitzak ahuldu egin ziren. Honela:

$$\begin{array}{ccccc} -t- & -t- & & & -t- \\ & & & > & d- \\ d- & -d- & & & -d- \end{array}$$

Honetaz gain, Martinetek lehen silabako azentua egozten dio euskararen hitzari. Azentuaren indarraren ondorioz, hitz-hasierako leherkariaren arteko oposaketaren zehaztapen fonetikoak /t^h/ (bortitza) - /d̥/ (ahula) izango litzateke, bortitzak hasperendunak izango liritekeelarik. Bokalaratean, ordea, azentupeko silabaren ondoren leherkari bortitza /d̥/ ahoskatuko zen, eta ahula /ð/. Garapen diakronikoa honako hau izango zatekeen:

$$\begin{array}{ccccc} t^h- & -d̥- & & & -t- \\ & & -t & > & d- & -t \\ d̥- & -ð- & & & -d- \end{array}$$

Eta planteamendu berdintsu bat proposatzen du Martinek txistukarietarako. Kasu honetan, ordea, ez du bere aierua inongo etimologiaz finkatzen. Txistukari bortitzak afrikatuak izango liriteke; ahulak, frikariak. Gavelen fasearekin alderaturik, garapena honako hau izango zatekeen:

$$\begin{array}{ccccc} ts^h- & -ts- & & & ts- \\ & & -ts & > & s- & -ts \\ s- & -s- & & & -s- \end{array}$$

Hortaz, Martineten leherkari eta txistukarietarako sistema kontsonantiko hauxe izango litzateke:¹

p	t	ts	tʰ	k
b	d			g
		s	ʃ	

Funtsean leherkariaren inguruko planteamenduarekin ados garen arren, txistukarietara hedatu ezin delakoan gaude, ez baitago **tsʰ-* > *s-* (edo *h-* edo horrelakorik) aldaketa zilegiztatzen duen etimologiarik (ik. 4.3. eta 4.4.).

2.2. Mitxelena (1957, 1961)

Mitxelena kontsonantismo osoa azaltzen saiatzen da. Euskalari hau ere Gavelen erronbotik abiatzen da leherkariak aztertzeko, eta latinetik zein hizkuntza erromanikoetatik maileguetan oinarrituz berauen zehaztapen fonetiko-koa ikertzen du.

Mitxelenak honako fenomeno hauek markatzen ditu:

- 1) Latineko eta hizkuntza erromanikoetako geminatu ahostunak zein talde kontsonantiko ahostunak ez-geminatu ahoskabe bihurtzen dira euskarara igarotzen direnean (lat. *abbās* > *apaiz*). Honek esan nahi du euskaldunen belarrietan ezaugarri fonetiko bereizgarria ez zela ahostun/ahoskabe oposaketa, artikulazio-tentsioa baizik.
- 2) Lekukotasun zaharretan, zenbait maileguk *f* aurkezten dute lat., errom. nahiz eusk. /b/-ren ordeztu: (*h*)*abia* / *kabia* < lat. *cavea* (baina heg. *afia*), Pouv. *taferna* < lat. *taberna*, *Nunno-falza-huri* (Errioxa, XI. mend., = eusk. *beltz*). Honek ere adierazten du euskara zaharrenean hitzuntzat *b*-ren ezaugarri bereizgarria ez zela ahostuna izatea, artikulazioaren ikuspegitik ahula izatea baizik.
- 3) Txistukarietan, oposaketa artikulazio-tentsioan oinarritzen da. Leherkarietan pareko oposaketa bat proposatzea nahikoa ekonomikoa izango litzateke.
- 4) Lekukotasun zaharrek (akit. *BAISOTHAR-*, CSM. *Harrahia*) zein Ekialdeko zenbait euskalkik (BN. Z. *ekharrî*) adierazten dute garai zahar batean hasperena zela eta ziurrenik leherkari bortitzak –behintzat, azentupean zeudenak– hasperendunak zirela. Glotisaren askatzearen berantatzeak tentsio glotala dakarrenez, hasperendun/hasperengabe oposaketa artikulazio-tentsioarekin parekatu ohi da.

¹ Hemen ezaguna den Martineten leherkari aurre-sudurkarituei buruzko hipotesia albo batera utzi dugu. Lat. *bacilla* > *mak(h)ila* bezalako maileguetan –non leherkari bat sudurkaritu egiten den– eta *pikor* / *bikor* / *mikor* bezalako txandaketetan oinarrituz, Martinetek /*m̄b*/ leherkari aurre-sudurkaritu bat proposatzen du AEZerako. Era berean, aditz-morfologiaren lehen pertsonako *n-* eta *-t* morfemak erkatuz, aurrekoari legokiokeen /*n̄d*/ fonema iradokitzen du. Hitz-hasieran *n̄d-* > *n-* eta hitz-amaieran *-n̄d* > *-t* aldaketak beharko genituzke, beraz. Nolanahi ere, euskalari gehientsuek teoria honi uko egin diote. Lat. *bacilla* > *mak(h)ila* /*m*/ fonemaren ezaren bitartez azal daiteke. /*m*/-rik ez zegoenez, /*b*/ sudurkariturik ager zitekeen, inolako ondorio fonologikorik sorrarazteke. Bestalde, /*n̄d*/ fonema bat proposatu baino lehen, *n-* / *-t* txandaketa azaltzeko badira beste aukera ekonomikoagoak –lehen pertsona adierazteko bi morfemak aldi berean zirela onartzea, esaterako–, eta /*n̄d*/ fonema bat postulatzeak arazo osoa ikaragarri korapilatuko luke.

Honen ondorioz, Mitxelenak artikulazio-tentsioan oinarritutako oposaketa bat –hots, *fortis/lenis* oposaketa– proposatzen du leherkari-sistema zaharrrerako.

Honen arabera, bai leherkariak bai txistukariak artikulazio-tentsioan oinarritutako oposaketa bat eta erronbo-moduko banaketa sintagmatiko bat izango zituzten:

	-t-			-ts-
d-		-t	s-	-ts
	-d-			-s-

Baina Mitxelenak planteamendu hau ozenen eremura hedatzen du. Berriro ere, garai zaharretako egoera arakatzeko maileguak dira gure baliabide nagusia. Latineko bokalarreko sudurkari geminatuak, euskarara igarotzen direnean, soildu egiten dira (lat. *annōna* > *anoa*), soilak desagertzen diren bitartean (lat. *catēna* > *katea*). Albokarietan, latineko geminatuak soildu egiten dira (lat. *castellum* > *gastelu*); soilak, ordea, dardarkari bihurtzen dira (lat. *caelum* > *zeru*). Lekukotasun zaharrek zein barne-berreraiketak planteamendu hauek jatorrizko lexikoan ere balio dutela erakusten digute. Hala nola: Erdi Aroko *annaia* > mod. *anaia*, akit. *SENI-* > mod. *sehi, min-gain - mihi*; Erdi Aroko *Olla-* > mod. *ola*, Ptol. *Gebala* > mod. *Guevara, sal-du ~ sar-i*.

Mitxelenak ondorioztatzen du ozenetan ere erronboaren itxurako banaketa sintagmatiko bat zela. Bi sudurkari eta bi albokari ziren: bata bortitza edo *fortis*, eta bestea ahula edo *lenis*. Leherkarietan eta txistukarietan bezalaxe, hitz-hasieran *lenis*-a baino ez zen posible; hitz-amaieran, *fortis*-a bakarrik. Bokalarrean, ordea, oposaketa gerta zitekeen.

	-N-			-L-
n-		-N	l-	-L
	-n-			-l-

Dardarkariak ezaugarri bereziak aurkezten dituzte. Hitz-hasieran, ez dago eta ez da inoiz dardarkaririk egon. Hitz-amaieran, badirudi diakronikoki egoera orokorrera egokituz joan dela, *-R* nagusitu delarik. Nolanahi ere, erronkarierak –bai eta beste zenbait zantzu orokorrek ere– behinola kokaleku honetan ere oposaketa izan zitekeela erakusten digute.

Azkenik, Mitxelenak bigarren silabako azentu bat proposatzen du². Hasieran, azentu hau hasperenarekin lotuta egongo zatekeen. Honek hasperena mantendu duten euskalkietan ageri zaigun hasperenaren banaketa ondo azalduko luke. Hasperena, beraz, ezaugarri supra-segmental baten moduan agertuko zen garairik zaharrenean, baina aldi berean, /h/ sistemaren beste fonema bat izango zen. /h/ honetaz gain, Mitxelenaren sistema honako hauxe genuke:

<i>Fortes</i>	(p)	t	tz – ts	k	N	L	R
<i>Lenes</i>	b	d	z – s	g	n	l	r

² Edozein kasutan, ez du Martineten lehen silabako azentua erabat baztertzen, baizik eta bere berreraiketa baino lehenagoko garai batera gibelatzen du.

2.3. Trask (1985)

Trask (1985) Mitxelenak (1957) proposaturiko sistemaren ezaugarri fonetikoak zehazten saiatzen da. Horretarako, Mitxelenaren berreraiketa berez bokalarteko berreraiketa dela markatzen du, eta bere planteamenduari zenbait oharpen kontrajartzen dizkio.

Hasteko, Traskek ohartarazten digu munduan *fortis/lenis* oposaketan oinarritutako kontsonantismoa duten hizkuntza gutxi direla, eta hauetan fenomeno fonetikoak ez datozela bat euskara zaharrerako suposa genitzakeekin. Kontsonante orotarako *fortis/lenis* oposaketa duten hizkuntza zapotekoetan, esate baterako, oposaketa hori bokalen artean ezezik gainontzeko kokalekuetan ere gerta daiteke. Trasken ustetan, kontsonante-sistema batean artikulazio-tentsioa eragilea baldin bada, ez dago oposaketa hori bokalen arteko ingurunera zedarritzeko inolako arrazoi fonetikorik.

Bestalde, hizkuntza zapotekoetan *fortes*-ak zein *lenes*-ak sintagmatikoki euren ezaugarri fonetikoak mantentzen duten bitartean, euskara zaharrean bestela gertatzen bide zen: segmentu bakoitzaren ezaugarria zein-nahi delarik ere, bi segmentu elkarketatik beti *fortis* bat sortzen da. Adibidez, *erreg(e)- + -bide > errepide* (eta ez ***erregbide*, hizkuntza zapotekoetan espero genukeen bezala), *bat- + -batean > bapatean* (eta ez ***batbatean*), *ez + zen > etzen* (eta ez ***ezzen*).

Fenomeno ulergaitz hauek saihesteko, artikulazio-tentsioaren ordeztasunak iraupena proposatzen du euskara zaharrerako. Honek esan nahiko luke euskara zaharreko *-t- / -d-* oposaketa funtsean geminazioaren oposaketa bat izango litzatekeela: *-tt-* vs. *-t-* (eta bertsua txistukari eta ozenetan: *-ss- / -s-*, *-nn- / -n-*). Planteamendu honen azken muturreko ondorioa txit larria da: Mitxelenaren sistemaren *fortes*-ak *lenes*-en geminazioak baino ez badira, orduan sistemak kontsonante-serie bakar bat du. Honela, 16 kontsonanteak 8tara murriztu beharko genituzke:

p t k s ś n l r

Honelako sistema bat tipologikoki izugarri murrizta izango litzateke. Gainera, Mitxelenak ez bezala, Traskek hasperen zaharra ezaugarri supra-segmentaltzat jotzen du, era honetan kontsonanteen inbentarioan sartzerik ez dagoelarik.

Trasken planteamendu honi hiru eragozpen nagusi aurki dakizkioke:

- 1) Esan bezala, tipologikoki guztiz markatua da (izan ere, Maddieson-en (1984) laginketan aztertu 317 hizkuntzetan ez dago hain kontsonante gutxi duen hizkuntzarik)³.
- 2) Traskek ez du proposatu eskemari eusten dion etimologiarik aurkeztu. Hau da, bokalarteko *fortes*-ak sintagmatikoki elkartzan diren *lenes*-en taldeak besterik ez balira, txandaketa morfo-fonologikoak espero genituzke, baina ez zaigu honelakorik ageri (adibidez, *e-karr-i < **eg-gar-*, non ***eg* eta ***gar* gainontzeko testuinguruetan ere agertuko liratekeen).

³ Hemendik aurrera, laginketa honi UPSID (UCLA Phonological Segment Inventory Database) esango diogu, unibertitate horretan eta izenburu horrekin burutua izan zelarik.

- 3) Honelako etimologiarik ez izateaz gain, teorikoki ere nekez aurki litezke, ***eg-*, ***sog-* edo honelako leherkariz amaituriko elementu monosilabikorik (ez lexemarik, ez morfemarik), antza denez, ez baitzen (ik. 3. saila).

2.4. Hualde (1999)

Hualdek (1999) Mitxelenaren sisteman leherkarietako ezaugarri fonetikoak zein izan daitekeen baino ez du eztabaidatzen.

Leherkari bortitzak eta ahulak ezberdintzen dituen ezaugarri fonetikoari dagokionez, Hualdek uste du *fortis/lenis* oposaketa bat postulatzeari ez dela nahitaezkoa eta gauzak zailtzen dituela. Ahostun/ahoskabe oposaketa nahia-go du. Markatu behar dugu Hualderen (1993) analisiaren arabera jatorriz ez dagoela hitz-mailako azenturik, esaldi-mailakoa baizik. Martinet eta Mitxelenaren analisisetan ez bezala, beraz, Hualderenean ez dago azentua eta hasperenaren arteko jatorrizko loturarik.

Bestalde, Hualderen iritziz hitz-hasierako ahostunketa ez da prozesu erabat erregularra; aitzitik, leherkarietara dagokienean hitz-hasiera testuinguru egongaitza da. Honi azalpen bat emateko, Hualdek honako hau proposatzen du: garairik zaharrenean, euskal lexikoan *d-* zein *t-* motako hitzak ager zitezkeen (hots, ahostun/ahoskabe oposaketa eragilea zen). Handik aitzina, aurreko hitza bokalez amaitzen baldin bazen (hots, *-V##_-* testuinguruan), oposaketa mantentzen zen, baina kontsonantez amaitzen bazen (hots, *-C##_-* testuinguruan), orduan bi aukera zeuden:

- 1) *-n/l/r##_-* testuinguruan, C- ahostundu egiten zen.
- 2) *-T##_-* testuinguruan⁴, C- ahoskabetu egiten zen.

Hauxe izango zen jatorrizko egoera. Ondoren, zenbait analogia zirela medio aldaera batzuk lexikalizatutako ziratekeen eta forma bakar bat testuinguru guztietarako orokortuko zatekeen. Hualdek zehaztu gabe uztea nahiago duen arrazoiren batengatik, garai zahar batean *g-* motako hitzek igoera bat jasozuten, eta euskara latindar maileguak jasotzen hasi zen unean nagusi ziren, eragin erromanikoak oposaketa berriro sartu bazuen ere.

Gure iritziz, Hualderen planteamenduari Traskenari jar dakizkiokeen bi eragozpen egotz diezazkiokegu:

- 1) Ez dago proposaturiko eskemari eusten dion etimologiarik.
- 2) *-T##_-* testuingurua egon zedin, zeinetik hitz-hasierako aldaera ahoskabeak orokortuko ziratekeen, hitz-amaierako leherkariak beharko ziren, eta 3. atalean ikusiko dugunez, garairik zaharreneako hauek zailtasunak dira.

Hauetaz gain, Hualderen analisisian beste bi eragozpen dakuskigu:

- 3) Hualderen garapena zuzena balitz, jatorrizko lexikoan hitz-hasierako leherkari ahoskabe gehiago aurkitzea espero genuke. Izan ere, badira

⁴ T = leherkaria.

zenbait (*ke, tu, to...*), baina orokorrean expresiboak dira. Funtsean, euskara zaharrean hitz-hasierako leherkari bat ahostuna ala ahoskabea zenentz zehazteko baldintzek Hualderenez bestelakoak dirudite.

- 4) Funtzionalki, Hualdek proposaturiko garapena ulergaitza da. Martinetek dion legez hitz-hasiera bereizte gehieneko kokalekua bada, bertan burututako neutralizazio batek sistemari ondorio latzak leharzkieke. Hau, egia esan, hizkuntza orotarako da baliogarri (adibidez, gazteleraz, hitz-hasieran ahostun/ahoskabe oposaketa neutralizatuko balitz, *barra* “barra” eta *parra* “mahatsondo” homofono bihurtuko lirake).

3. AZTERBIDE BERRI BAT: LAKARRA (1995)

Funtsezkoan Mitxelenaren (1957) eredutik abiatuz, Lakarra –(1995) eta ondorengo lanetan– Mitxelenaren berreraiketarik are atzerago –hau da, garai zaharragoetara– joaten saiatu da.

Lakarrak (1995) markatzen du aitzin-euskararako berreraiki daitezkeen erro disilabikoak oro –edo gehientsuak behintzat– berezko esanahi bat duten bi osagaitan zati daitezkeela. Honen guztionen ondorioztapen diakronikoa izango litzateke garairik zaharrenean euskararen egitura morfo-fonemikoa monosilabikoa izan zela. Esate baterako, (*h*)*ar-bel* hitza hartzen baldin badugu, badirudi hemen aurkitzen dugun *har* elementua *harr-i-n* ere agertzen zaigula, agian “harri” esanahiaz. Bigarren elementua, *bel*, baliteke *gi-bel-en*, *os-pel-en* eta *u-bel-en* agertzen zaigun berbera izatea, agian “beltz” esanahiaz. Euskal lexiko zaharretik barrena azterbide hau aplikatzen baldin badugu, konturatuko gara oso baliabide emankor eta baliotsu gertatuko zaigula, hitz zahar bisilabiko gehienak bi elementu monosilabikotan zatika daitezkeelarik.

Lakarraren prozedura, beraz, aitzin-euskararen lexikoaren analisi morfologikoan aurrera-pausu handia delakoan gaude. Erroari dagokionean, Lakarrak (1995) markatzen du badirudiela garairik zaharreneko erro lexematiko orok CVC egitura duela (**har* “harri”, **bel* “beltz”, *zur* “zur”, **sal* “sari, salgai”...), bestelako egiturek esanahi gramatikalagoak dituzten bitartean (CV: **sa* “barneko (?)”, **gi* “(?)”, **-di* ‘atzizki’; V: **-i* ‘atzizki’, **-u* ‘atzizki’...). Bestalde, garai honetan ez bide da leherkariz amaituriko elementurik, ez lexematikorik ez gramatikalik (***sat*, ***ek*...), eta TVTV egiturako loturak bitxi samar dira eta gehienetan maileguak dira (*bake, bike*...) edo azalpen bigarrenkariak dituzte (*begi, toki*...).

Gure lan batean (ik. Martínez Areta 2003) zehazten saiatu gara garai monosilabikotik beste bisilabiko baterako igarotze-prozesu hori semantikoki nola burutuko zen. Bertan adierazten dugu aitzin-euskararen lexema disilabikoak aztertzerakoan bi garai ezberdindu behar ditugula. Lehenengoan –Mitxelenaren sistema baino lehenagoko garaikoan– Lakarrak markatu elementu monosilabiko bakoitzak berezko izaera izan behar zuen. Honi Lakarrak (1995) aurre-aitzin-euskara esaten dio, geroztiko artikuluetan izendatzea aldatu badu ere: Lakarra (2004a, 2004b)-ri jarraituz, Martínez Areta (2006) lanean Aitzin-Euskara Zaharra (aurrerantzean, AEZ) esan diogu. Bigarrenean, elementu monosilabiko horiek lexikalizazio baten bidez konposatu disilabi-

ko batean harrapatuta geratu dira eta euren jatorrizko esanahia galdu dute. Garai hau momentuz ez dugu izendatuko.

Derrigorrezkoa zaigu lexikalizazioaren prozesu hau gure analisisian zertan datzan ondo zehaztea, eta argiro azaltzeko hobe dugu lehenagoko adibidearekin jarraitzea. AEZeko garaian, ziurrenik **har* “harri” eta **bel* “beltz” elementuak ziren. Bakoitza isolaturik nahiz konposakeran ager zitezkeen (*har-bel* “harri beltz”). Azken kasu honetan, osagai bakoitzak bere jatorrizko esanahia mantendu baina sintagma batean sartzen zuen. Konposatua, beraz, analitikoki interpretatzen zen. Honela, [_ - _] egiturako konposatuak osatzen zituzten, non gidoiak erro bakoitzaren jabetasuna adierazten duen.

Baina, aldi berean, hauetariko konposatu batzuk esanahi sintagmatikoaz gain beste esanahi bigarrenkari bat ere har zezaketen (adib. AEZ. **har-bel* “harri beltz > arbel”), eta era honetan lexikalizazioaren bidea urratuz zihoan. Gure aierua da garai jakin batean konposatu disilabiko hauen lexikalizazioa burutu zela: [_ - _] > [_ _]. Garai berri honetan, konposatuak ez ziren analitikoki interpretatzen (AEZ. **har-bel* “harri beltz”, AEZ. **zen-gor* “zezen gor”, AEZ. **zan-gur* “zaindari makur”...) baizik eta esanahi berriko erro disilabikoak sortu berriak ziren ((*h*)*arbel*, *zekor*, *zakur*...).

Ezberdintze honek berreraiketa fonologikorako duen garrantzia 4. atalean ikusiko dugu, baina horra jo aurretik kronologiaren inguruko zehaztapen batzuk egin behar ditugu. Lexikalizazioaren ondorengo garai honi ez diogu momentuz izenik ipini. Lakarra (2004a, 2004b)-n oinarrituz, guk Martínez Areta (2006)-ean bi fase zedarritu ditugu: bata **/t^h-, k^{-h}/ > /h-/* aldaketa baino lehenagokoa da, funtsean Martineten leherkari buruzko planteamenduari ondo dagokio eta Aitzin-Euskara Modernoa esan diogu (aurrerantzean, AEM); bestea **/t^h-, k^{-h}/ > /h-/* aldaketaren ondorengoa da, Mitxelenarenari dagokio eta honen izendatzeari jarraiki Euskara Zaharra (aurrerantzean, EZ) esango diogu.

Hurrenkera kronologikoan laburbilduz, honako fase hauek zedarritu ditugu:

- 1) Aitzin-Euskara Zaharra (AEZ): elementu monosilabikoek berezko esanahia dute, baina [_ - _] egiturako konposatuetan taldeka daitezke.
- 2) Aitzin-Euskara Modernoa (AEM): aipatu lexikalizazioak burutu dira eta [_ _] egiturako erro disilabikoak sortu dira, baina oraindik hitz-hasieran bost leherkari (**/t^h, k^h, b̥, d̥, ɡ̊/*) posible dira.
- 3) Euskara Zaharra (EZ): **/t^h-, k^{-h}/ > /h-/* aldaketaren ondorioz, */-b̥, d̥, ɡ̊-/* baino ez dira posible hitz-hasieran, eta kokaleku horretan hasperendun/ez-hasperendun –edo *fortis/lenis*– oposaketa ez da bereizgarria.

Dena delarik ere, estrukturalki AEM eta EZ faseen arteko zedarria leherkarietarako soil-soilik da garrantzitsua, lexikalizazioak bietan beteta baitaude. Horregatik, komeni zaigunean –funtsean, gainontzeko fonemei buruzko azpi-ataletan– bi fase hauekin bat egingo dugu, AEM-EZ alegia.

4. AURRE-AITZIN-EUSKARAREN KONTSONANTISMOA

Deskribatu berri dugun Lakarraren azterbide honek Mitxelenaren sistematik are atzerago –hots, AEZeruntz– joatea zilegiztatzan digulakoan gaude. Jarraian kontsonantismo osoa zenbait alderditan zatitu eta alderdi hauek banan-banan arakatuko ditugu.

4.1. Albokariak

Euskararen lexikora sartzen diren mailegu latindar-erromanikoen jokaera fonetikoaz baliatuz (lat. *ballaena* > *balea*, lat. *caelum* > *zeru*), Mitxelenak (1957) bi albokari berreraikitzen ditu EZerako, *L eta *l, eta honako egitura sintagmatiko hau egozten die:

$$\begin{array}{ccc} & -L- & \\ l- & & -L \\ & -l- & \end{array}$$

Mitxelenak EZerako –bai eta gure AEMrako– proposatu eskema hau txit markatua da, artikulazio-tentsioaren bidez adierazitako bokalen arteko bi ozenen arteko oposaketa munduko hizkuntzetan zehar oso urria baita. Honek *-L-/l- oposaketa aitzinakoa zen aukerak gutxiagotzen ditu.

Mitxelenaren sistematik –hots, AEM-EZtik– atzerago –hots, AEZeruntz– joateko, barneko *-L- bat duten hitzak aztertu beharko ditugu. Kasuren batean, Lakarraren (1995, 2002) etimologiek interesagarri suerta dakizkigukeen txandaketa morfo-fonologikoak eskaintzen dizkigute. Hala nola, Lakarrak (2002: 432) *bele* < AEZ. **bel-le* “(?)” iradokitzen du⁵. Lehen elementua CVC erro bat izango litzateke, eta bigarrena atzizki bat. Etimologia honen dimentsio semantikoa azpimarratu nahi genuke. AEZ. **bel-le* eraikuntzaren esanahi zehatza zein-nahi zelarik ere, garrantzizkoa da edozein kasutan analitikoki interpretatzen zen perifrasi bat zela. Albokari geminatu horretan, lehen -l- hori **bel* elementuari zegokion eta bigarrena *-le atzizkiari. Aitzitik, AEM-EZ. **beLe* formara igarotzen denean, perifrasi hori lexikalizatu egin da, eta bertan albokari bakarra dugu, *-L- bortitza, **beLe* erro disilabikoari dagokiona. Ezinbestekoa da ihardukitzea gure planteamenduaren muina zerean datzala: garapen fonologikoa eta semantikoa estu-lotuta daudela.

Lakarrak berak proposaturiko beste etimologia bat (ahozk. kom.) hauxe dugu: *bele* < AEZ. **bel-e* “beltzen(a)”. Kasu honetan, lehen elementua “beltz” izango litzateke, eta bigarrena atzizki superlatiboa⁶. Gure ikuspegitik, interesatzen zaiguna da bi kasuetan jatorrizko egoera berbera izango genukeela: albokari bakar bat, */l/. Etimologia zuzena AEZ. **bel-le* > AEM-EZ. **beLe* bada, *-L- geminazioaren bidez sortuko zatekeen. AEZ. **bel-e* > AEM-EZ. **beLe* garapen zuzena bada, ordea, -e atzizki superlatiboak ekoiztu fortizioaren

⁵ Artikulu horretan Lakarrari berreraiketa formala baino ez zaio inporta. Egiaitan, semantika oso eztabaidagarria da. Ik. Martínez Areta (2003).

⁶ Esan behar da Lakarrak azken etimologia hau gustokoago duela.

bidez (4.2.-n ikusiko dugun legez, badirudi sudurkarien azterketak honen pareko kasu bat eskaintzen digula).

Beste hitz interesgarri bat *il(h)un* da. Lakarrak (ahozk. kom.) etimologia hau iradokitzen du: *il(h)un* < **hil-hun* “hildakoen tokia (?)”, non *hun* elementua mod. *un-e* eta *gun-e* hitzekin erka daitekeen. Kasu honetan, AEM-EZ. **-L-* beste jatorri bat izango luke: **-l-* + **-h-* etimologikoa (hots, bigarren silabara orokortutako hasperenaren hedapen analogikoaren bidez ez sortua, ziurrenik adibidez Z. *olho*-n kasua den bezala).

Analisi guztietan funtsezkoa zera da: etimologiaren jokuak anitz aukera sorrarazten ditu, baina kasu bakoitzean zuzena zein-nahi delarik ere, oinarritzakoa da AEM-EZ. **-L-* oro AEZeko **-l-* simple batetik eratorri ahal izatea. Honek garairik zaharreneko hain markatua den *-L-* / *-l-* oposaketa alboratzea zilegizatzen digu eta askoz ere ohikoa den **/l/* albokari bakar bateko sistema batera garamatza.

Beste galdekizun bat da nolako egitura sintagmatikoa izan zezakeen albokari bakar honek AEZeko garaiko CVC zein CV elementuen barnean. Hiru gertaera hauteman behar ditugu. Lehenik, ez bide dago *l-z* hasitako oinarritzako silaba duen erreduplikaziorik (ik. 3), ez CV-CV motakorik (***la-la*, ***lo-lo*) ez eta CV-CVC motakorik ere (***la-lar*, ***lo-lon*). Aitzitik, badirudi dV zein dVC motako oinarritzako silaba batez eratutako hainbat erreduplikazio daudela, non hitz-hasierako **d-* erori den (**da-dar* > *adar*, **da-dats* > *adats*), baina zeinen forma ez-erreduplikatuak **d-* > *l-* aldaketa pairatzen duen (**dats* > *lats*, **darr-i* > *larri*).

Bigarrenik, ez bide dago [_ _] motako konposaturik, non bigarren elementua *l-z* hasitako CV(C) batetik erator daitekeen. Edo, egotekotan, franko urriak dira. Hauetariko kasu bat *-le* atzizkia izan daiteke (**hez-le* (?) > *er-le*). Era berean, ez dago konposatu hauetan ***lan*, ***len...*, ***lats*, ***lets...*, edo **l-z* hasitako beste inongo bigarren elementurik, IV zein IVC erroak zilegi balira espero genukeen bezala. Gainera, hemen ere badira hitz-hasierako *l-* eta bokalarteko *-d-*ren arteko txandaketa mofo-fonologikoak (*lohi* / *-doi* atzizkia, *latz* / *ar-datz*, *luze* / **e-dutz-i* > (*e*)utz*i*).

Hirugarrenik, azken urteotan Lakarrak (2004a, 2005, 2006) burutu **e-CVC*-i aditz-egitura batzuen azterketak erakusten digu zenbait kasutan CVC erroa AEM-EZeko garaiko IVC batetik datorrela (AEM-EZ. **e-lin-o* > mod. *herio*, AEM-EZ. **e-lor-i* > mod. *erori*, AEM-EZ. **e-los-i* > mod. *erosi*) eta beste zenbaitetan dVC batetik (AEM-EZ. **e-din-o* > mod. *jo*, AEM-EZ. **e-dos-i* > *josi*). Hauteman daiteke hauetariko erro batzuk jatorriz berberak izan ahal izan direla (**lin* - **din*, **los* - **dos*). Berdintsua dakusagu Traski (1977) darraion Lakarraren (2006) ustetan jatorriz inperfektiboa den artizki kausati-boan, batzuetan AEM-EZeko **la-* formara (mod. *eraman* < AEM-EZ. **e-laman*) eta beste batzuetan **da-* formara (mod. *jauzi* < AEM-EZ. **e-da-duz-i*) eraman daitekeelarik. Dirudenez, bai *-CVC-* motako zenbait errotan bai *-CV-* morfeman jatorritzako *-hots*, AEZeko *-* elementu bera dugu, ziur asko hasierako **d-z*. Beranduago, **d-* > *l-* aldaketa gertatu zen. Kasu batzuetan, aldaketa hau baino lehen **e-* aurrizkiaren eransketa burutu zen, eta gero bokalen arteko **d-* bat erori zen. Beste batzuetan, **e-*ren eransketa **d-* > *l-* aldaketa baino berriagoa da. Tratamendu bikoitz honek hainbat bikote ekoiztu zituen: **e-* + **-din-* + **-o* > *jo* / *herio*, **e-* + **-dos-* + **-i* > *josi* / *erosi*, **e-* + **-da-* > *ja-* (*jauzi*, *jario...*) / *era-* (*erakarri*, *erakutsi...*).

Hiru gertaera hauek Lakarra (2004a, 2005) bultzatu dute suposatzen **d-* > *l-* aldaketa, Mitxelenak (1977 [1961]: 257-58, 323) jadanik sumatu zuena⁷, egiaz *l-z* hasitako CVC zein CV motako (ia) elementu guztien jatorria dela. Kasu honetan, CVC zein CV elementuetako hasieran ez legoke *l*-rik, edo egotekotan bazterreko fenomeno izango litzateke.

Honexegatik, AEZe an bokari bakar bat zegoela proposatzen dugu, **l* /*ll*, zeinaren antolaketa sintagmatikoa CVC erroetan honako hau izango litzatekeen:

(l-) -l

4.2. Sudurkariak

Era berean, maileguen jokaera fonetikoan oinarrituz (lat. *annōna* > *anoa*, lat. *plānum* > *lau*), Mitxelenak (1957) bi sudurkari berreraikitzen ditu EZe-rako, **N* eta **n*, eta honako egitura sintagmatiko hau esleitzen die:

-N-
n- -N
-n-

Hemen ere, markatu behar da, hasteko, artikulazio-tentsioaren bidez adierazitako bokalen arteko oposaketan bat ez dela batere ohikoa munduko hizkuntzetan.

Erabili berri dugun azterbide bera baldin badarabilgu hemen, AEM-EZeko **-N-* kasuak bilatu beharko ditugu. Hauetariko bat AEM-EZeko **se-Nar* da. Badirudi < *sen-* (ik. **sen-i* > *sehi*) + *-har* (ik. *ar*) datorrela. Horrela bada, AEM-EZeko **-N-* *fortis*-a lehenago ikusitako AEZeko **hil-hun* hitzaren parean sortuko zatekeen, hots, **-n-* + **-h-* etimologikoaren (hots, bigarren silabara orokortutako hasperenaren hedapen analogikoaren bidez ez sortuaren) elkarketatik. Nolanahi ere, *ahuntz*-en kontrako emaitza lortzen dugu, nahiz eta pareko jatorri bat bide duen, < **han-huntz* “huntzaren moduko adarrak dituen (?)”⁸. Hortaz, ez omen dago AEZ. **-Vn-hV-* sekuentzia bat erregularki nola garatzen den zehazteko era ziurrik. Baina, berriro ere, gure ikuspegitik interesgarriena da etimologizatzeko bide guztiek AEZeko sudurkari bakar batera garamatzatela.

Badira AEM-EZeko **-N-* nola sortu ahal izan zen azaltzeko beste etimologia batzuk. *Ene* ziurrenik *en-e* -tik dator (ik. Erdi Aroko *Enne-co*, akit. *EN-NE-BOX*). Lehen elementua singularreko lehen pertsonako izenordainaren forma zahar bat bide da (ik. adib. *n-en-go-(e)n*). Bigarrena, *-e*, genitiboko atzizki zaharra (ik. *neur-e*). Baliteke mod. *ene*-ren sudurkari *fortis*-a *-e* atzizkiaren aurrean egoteak sorrarazi izana, *bele* < AEM-EZ. **beLe* < AEZ. **bel-e* “bel-tzen(a)” etimologia posiblean gertatzen zen bezala. Eta bertsua gerta liteke *gune* nahiz *une* hitzetan, < AEM-EZ. **guNe*, **huNe* < AEZ. **gun-e*, **hun-e* (?) (ik. goian *hun-ez* esan berri duguna).

⁷ Ik. Mitxelena (1977 [1961]: 258): “La admisión de este cambio con carácter regular permitiría comprender cuál ha sido el destino moderno de la antigua oclusiva apical lene en posición inicial”.

⁸ Ik. Lakarra (2002: 433). Dena den, erka bide forma hau toponimian eta abizenetan aurki daitezkeen eta sudurkaria mantentzen duten *Anuncibay*, *Anunzarri* eta honelakoekin.

Beraz, AEM-EZ. *-N- kasuak etimologizatzeko anitz era daude, baina guztiek AEZeko sudurkari bakar batera garamatzate. Beste era batera esanda, badirudi AEM-EZ. *-N- bide bigarrenkari batetik sortu zela.

AEZeko CVC erroetan sudurkari bakar horrek izan zezakeen jokaera sintagmatikoa galdekizun berezia da, albokariena ez bezalako. [_ - _] tanke-rako konposatu zaharretan, ez da agertzen, antza, ez lehen ez bigarren osagaiko kokalekuan, *n-z* hasitako CV(C) elementurik (***nol-di*, ***nar-tz*; ***bar-nal*, ***bel-na*), ez eta *e-CVC-i aditz-eraikuntzetan ere (***e-nol-i*, ***e-narr-i*). Alabaina, nVC egitura bereziki ohikoa da erreduplikazioetan⁹: AEZ. **no-nol* > mod. *ohol*, AEZ. **na-nal* > mod. *ahal*, AEZ. **na-nar* > mod. *har*¹⁰, AEZ. **na-nan-tz-* > mod. *ahantzi*, AEZ. **no-non-i* > mod. *ohoin*.

Bestalde, badira konposatuetan agertzen diren baina testu-maiztasun handia erakusten duten nV egiturako bi elementu: *ni* eta *no-* 'galderazko ize-nordaina (ik. *no-r*, *no-n...*)'.

Ez dago honi guztioni azalpen erabat koherente eta hutsezin bat emate-rik. Hala eta guztiz ere, Martínez Areta (2006) lanean aieruz proposatu dugu garairik zaharrenean nVC erroak 'ideofonoak' zirela. Ideofonoak munduko hainbat hizkuntzatan daude eta itxura expresiboa duten erroak dira. Gai-nontzeko lexikoan ez dauden ezaugarri fonologiko/fonotaktikoak izan ohi dituzte. Hausaz¹¹, esate baterako, lexiko arrunteko silabek CV egitura dute, baina ideofonoak CVC egiturakoak dira. Buluz, ideofonoek /p/ fonemikoa zilegitzen duten bitartean, gainontzeko lexikoan [p] /b/-ren alofona baino ezin da izan. Ideofonoak dituzten bantuar hizkuntzetan, hauek maiztasun berezia dute erreduplikazioetan. Beste alde batetik¹², yir-yiront australiar hizkuntzan, ideofonoetan *lh-* fonema erro-hasieran bakarrik agertzen da.

Haatik, ideofonoen argudiaketa hau zuzena balitz ere, arazoaren zati bat baino ez litzateke izango, nVC hauetaz gain txit maizkoak diren *n-a-* aditz-forma (**ni-da-du* > **n-a-du* > *nau*), *ni* eta *no-* ere baditugularik. Baliteke hauek sintaxiaren gertaerekin zerikusia izatea. Gómezekin (1994) onartzen badugu euskarak noizbait, edozein kasutan erro monosilabikoko garai batean, XV(S)O hurrenkera izan duela, non X subjektua izan zitekeen, suposa genezake beranduago, aditzeko eraikuntza osoa lexikalizatutakoan, *n-z* hasitako aditz-forma disilabikoak sortu zirela (*n-a-tor*, *no-r-e(n)*, etab...). Kasu honetan, onartu beharko genuke nVC egiturako erroen aldamenean nV elementu batzuk bazirela lexikoan.

Hau guztia kontuan hartuta, AEZean sudurkari bakar bat zegoela proposatzen dugu, **n* /n/, zeinaren antolaketa sintagmatikoa CVC erroetan honako hau izango litzatekeen:

(n-)¹³ -n

⁹ Ik. Lakarra (2004a, 2004b, 2005, 2006).

¹⁰ Honetarako, ik. Martínez Areta (2006).

¹¹ Ik. Childs (1994).

¹² Ik. Alpher (1994).

¹³ Parentesiek ez dute kasu honetan esan nahi nVC errorik ez zenik, agerpen berezia erakusten zutela baizik. Erreduplikazioetan maiz agertzen ziren, baina bestelako konposakeran eta *e-CVC-i aditz-egituretan, dirudienez, ez.

Aurrera jarraitu baino lehen, 4.1. nahiz 4.2. puntuei –hots, albokariei nahiz sudurkariei– dagozkien zenbait zehaztapen egin nahiko genituzke. Iku-si dugu nolako murriztapenak dituzten RVC¹⁴ egiturako erroek. Ohartarazi nahi dugu hemen bi arazo banandu egin behar direla: bata fonotaktikoa, beste fonologikoa. RVC errorik ez egoteak (**IVC) edo egotekotan berezi izateak (nVC, ohikoa erreduplikazioetan baina oso bitxia bestelako konposakeran eta aditzetan, **e-nVC-i (?)) ez dakar R-z hasitako silabarik eza. AEZ. *sali “sari” hitza, adibidez, fonotaktikoki *sal-i egitura du (albokaria erroaren amaieran dagoelarik), baina fonologikoki *sa.li da (albokaria bigarren silabaren hasieran dagoelarik).

Honelako fenomenoak ez dira falta munduko hizkuntza batzuetan. Yir-yiront australiar hizkuntzaz ari dela, Alpher-ek (1994: 162) diosku hitz-hasierako kontsonanteen banaketa ezberdina dela ideofonetan eta gainontzeko lexikoan. Esate baterako, *p* %30eko ideofonoetan hasierako fonema den bitartean, lexiko osoan %17ko hitzetan bakarrik da hasierako fonema. Eta berdintsua beste fonema batzuekin. Paralelo diakroniko bat Bakró-Nagy-k (1992) aurkezten digu. Aitzin-uralikoz, antza, CVCV erroetan *r*- eta *l*- oso urriak dira. Badirudi, beraz, C₁ kokalekuan urkariak nolabaiteko murriztapen bat zutela. Aitzin-fino-ugrieraz, ordea, murriztapen hau desagertu egin da.

4.3. Txistukari apikal-albeolareak

Txistukari apikal-albeolareei dagokienez, Mitxelenak (1957) bi berreraikitzen ditu EZerako, *ts eta *s, eta honako egitura sintagmatiko hau esleitzen die:

-ts-
s- -ts
-s-

Hau jatorrizko lexikotik bertatik ondoriozta daiteke, non hitz-hasieran frikariak baino ez diren agertzen (*sabel*, *samin*...) eta hitz-amaieran afrikatuak baino ez (*akats*, *ahots*...), bokalarteko oposaketa posiblea den bitartean (*oso* / *otso*, *hesi* / *etsi*...). Maileguk jokaera hau baieztatzen du. Hala nola, latineko hitz-amaierako txistukari frikariak afrikari bihurtzen dira euskarara igarotzerakoan (lat. *fortis* > *bortitz*).

Antolaketa sintagmatiko hau, non frikari/afrikari oposaketa ingurune fonetikoak baldintzatuta dagoen (hasieran beti frikaria, amaieran beti afrikaria), AEZera baldin badaramagu, orduan onartu beharko dugu erro-egitura CVC zen garaian C₁ beti frikaria zela, eta C₂ beti frikaria. Honela, sistema honetan ez legoke oposaketa aurkez zezakeen ingurunerik. Hortaz, frikaria eta afrikaria ez lirateke bi fonema, fonema bakar baten bi alofono baizik, seguruenez /s/, hitz-amaieran [tʃ] alofonoa zuena. Ikuspegi honetatik, bokalarteko oposaketaren sorrera AEZetik AEMrako igarotzean burutu ziren lexikalizazio-prozesuetan gertatuko zatekeen.

¹⁴ R = Ozena. Eztabaidatzen ari garenerako, albokaria edo sudurkaria.

Arestian Lakarrak (2002) proposatu bi etimologietan, fonemizazioa prozedura konpensatzaile baten bidez sortu ahal izan da. Bata *otso* < AEZ. **hor-so* da. Lehen osagaia mod. *hor* izango litzateke eta bigarrena atzizki handigarria (*ama-so*, *aita-so*..). Nahiz eta ozen baten ostean artxifonema txistukaririk zaharrena frikaria izan, baliteke hemen frikaria afrikari bihurtzea dardarkariaren erorketak eragindako nolabaiteko garapen konpensatzaile bat izatea: [horso] > [hotso]¹⁵. Beste etimologia *etxe* (B. erronk. *etse*), *etsi*, *itxi* (B. heg. *itsi*) < **her-ts-V* (< **her-tz-*) da, non **hor-so*-ren ingurune fonetiko bera dugun eta beraz afrikazioaren ustezko jatorri beraren paralelo bat.

Bokalen arteko afrikazioaren fonemizazioaren beste jatorri bat /CVS-¹⁶ + atzizki bat edo beste erro bat/ elkarketa izan liteke. Honela, *sats-* + *-zu* 'ugaritasunaren atzizkia' > BN. *satsu*, *hats-* + *-e* > Leiz. *hatse*. Erro monosilabiko garaian, erro-amaierako *-ts* afrikari hori alofono bat baino ez zen izango. Fonemizazioa afrikari horri beste zerbait eransterakoan sortuko zen. Dena den, onartu beharra dago ez dagoela ziurtasunez jakiterik fonemizazio hauek AEZetik AEM-EZerako igarotzean sortu zirentz. Garrantzizkoa da azterbide honen arabera AEZak txistukari apikal-albeolar bakarra izan zuela, eta EZak bi. Fonemizazioak, beraz, tarteko uneren batean gertatu behar izan du.

Azkenik, zenbait kasutan frikari / afrikari oposaketa analogia morfologiaren bitartez sortu ahal izan da. Adibidez, gure analisi fonetikoa zuzena bada, AEZean *e-bats* (afrikatu alofonikoarekin) eta **e-bas-i* izan genitzake elkarren ondoan. Baliteke beranduago gauzatze fonetiko afrikatua *e-bats*-etik lexema beraren gainontzeko formetara hedatu izana, (**e-bas-i* → *ebatsi*).

Ondorioz, AEZerako txistukari bakarra proposatzen dugu, **s /s̺/*, zeinak CVC erroetan bi alofono izango zituen, [s̺] hasieran eta [ts̺] hitz-amaieran:

s- -ts

4.4. Txistukari bizkar-albeolareak

Mitxelenak (1957) EZerako proposatu eskema apikal-albeolareen parekoa da:

-tz-
z- -tz
-z-

Garai zaharrago batera jotzeko, hemen ere barneko *-tz*-ren jatorria aztertu behar da. Dena den, badirudi bizkar-albeolaretan hitz-amaierako afrikazioa ez dela inoiz salbuespenik gabekoa izan. Ikus bitez, batik-bat, *-z* atzizki instrumentala (*buru-z*) eta pluralizatzailea (*dago-z-ki-o*, B. *dago-z*).

Kasu honetan ere afrikatuaren fonemizazioak jatorri ezberdinak izan ahal izan ditu. Baliteke hauetariko zaharrena alofono afrikatuaren ondorengo atzizki-eransketa izatea: *hatz-* + *-e* > *atze*, **edutz-* + *-i* > **edutzi* > *utzi* (BN. *eutzi*). Alabaina, hau ez da beti gertatzen (erronk. *e-kuz-i*, *hez-i*), eta badira kasuak

¹⁵ Etimologia honen nondik-norako fonetikoak oso eztabaidagarriak dira eta Martínez Areta (2006)-n iruzkindu ditugu zeheki.

¹⁶ Hau da, txistukariz amaitutako CVC erroa.

non jatorrizko lexema bera emaitza ezberdinak ekoiztu dituen (**e-duz-i* > (*e*)*utzi*, baina **duz-* + *-e* > *luze*). Honek bizkar-albeolareetan hitz-amaierako afrikazioa arau erabat zurruna ez zen beste zantzu bat dirudi.

Hau gutzia dela eta, AEZean txistukari bizkar-albeolar bakarra iradokitzen dugu, **z /s/*, hitz-amaieran batzuetan [tʃ] alofonoa izan zezakeena:

z- (-z /)-tz

4.5. Leherkariak

Mitxelena (1957) bi leherkari *fortes*, **t* eta **k*, eta hiru *lenes*, **b*, **d*, eta **g*, berreraikitzen ditu EZerako. Euren banaketa sintagmatikoa hauxe izango litzateke:

	(-p-)			-t-			-k-
b-	(-p)	d-	-t	g-	-k		
-b-		-d-		-g-			

Martínez Areta (2006) lanean eztabaidatu dugu zein fonazio-mota izan litekeen oposaketa honetan. Argudiaketa tipologiko nahiz barnekoetan oinarrituz, EZeko fonazio-oposaketa fortizioarena zela onartu dugu. Nolanahi ere, fortizioa oso kontzeptu eztabaidagarria da. Guk uste dugu EZaren fortizioa germaniar hizkuntzetakoaren parekoa dela, VOT-en¹⁷ oinarritua. Horrela, alde batetik **/t^h k^h/* *fortes*-ek artikulazio-tentsio gehiago izango lukete (egiatan gainontzeko *fortes*-ek bezalaxe: **N*, **L*, **R*, *ts*, eta *tz*), eta beste alde batetik hizkuntza erromanikoena baino VOT luzeago bat. Aitzitik, **/b, d, g/* *lenes*-ek artikulazio laxoagoa eta VOT laburragoa izango lukete.

Haatik, baliteke garai zaharrago batean –hots, AEZeko garaian–, gainontzeko fonemetan *fortis/lenis* oposaketa oraindik eratuta ez zegoenean –eta, hortaz, oraindik erronborik ez zegoenean–, **/t^h k^h/* eta **/b, d, g/* ezberdintzen zituen ezaugarri bakarra VOT, hots, hasperendun/hasperengabe oposaketa izatea. Ezaugarri hau askoz ere ohikoagoa da munduko hizkuntzetan, eta AEZetik AEMrako igarotzean burutzen den **/t^h-, k^h-/ > /h-/* aldaketa fonetikoki ondo azalduko luke.

Ozenei nahiz txistukariei ez bezala, AEZetik AEMrako igarotzeak ez lieke bokalarteko leherkarietara erasango, ez eta gainontzeko kokalekuetan ere: AEZ. **har-bel* [harʔb̥ el] > AEM. **(h)arbel* [(h)arʔb̥ el]. Baina AEMtik EZera **/t^h-, k^h-/ > /h-/* gertatzen da. Aldaketa hau, seguruenez, ezari-ezarian burutzen da, eta akitanierako garaian oraindik ez bide dago erabat azkenduta (akit. *HALSCO*, baina *TALSCO*). Bokalartean aldaketa hau burutu ez zelarik, hitz askeak eta konposatuak erkatuz zenbait txandaketa morfo-fonologiko aurki ditzakegu (*alde / ar-talde*, *ume / ar-kume*). Honelako txandaketak hitz-hasieran zein [_ - _] egiturako konposatuen bigarren osagaiko kokalekuan ager daitezkeen lexema monosilabikoetan ere hauteman daitezke: *al-bo / a-tal* (< **ta-tal* (?))¹⁸, *er-tz / o-ker*¹⁹.

¹⁷ VOT = Voice Onset Time.

Sisteman */p/ –edo */p^h/– falta da. Falta honen aurka leherkari hasperendunekiko sistema fonologikoetan eskuarki lauki hutsik ez izateak dihardu. Haatik, fonazio-oposaketa ahostun/ahoskabe motakoa baldin bada, /p/-ren falta sistema frankotan aurkitzen da. Ahostun/ahoskabe eta hasperendun/hasperengabe oposaketak azken finean VOT delakoaren *continuum*-aren barneko bi puntu baino ez direla kontuan harturik, baliteke AEZeko hastapenetan hasperena murriztagoa izatea. Beranduago, leherkariak hasperendun/hasperengabe oposaketa bereganatuz joan zirela, /p/-ren falta mantendu zen. Beste azalpen bat zera izango litzateke: */t^h-, k^h-/ > /h-/ aldaketa baino askoz ere lehenago, artikulazio-puntu ezpainkarian aurreko aldaketei legozkien beste bat, */p^h-/ > /h-/ alegia, burutu zen, baina hau hain da zaharra, ezen ez duen inongo txandaketa morfo-fonologikoren zantzurik utzi, *al-bo* / *a-tal*, *er-tz* / *o-ker* eta honelakoetan dakusagun bezala. Argi dagoena da irizpide estrukturalak ez digutela /p/ bat berreraikitzerik zilegiztatzan, ez AEM-EZrako, ez AEZerako.

Azkenik, ez bide da izan, ez AEM-EZean, ez eta AEZean ere, erro-amaierako leherkaririk. Hizkuntza modernoan, leherkariz amaitutako jatorrizko morfemak -DV²⁰ egiturako alomorfoak eduki ohi dituzte: *du-t* - *du-da-la* (ik. halaber RS. *damin-da* “ipin dezadan”), *harri-a-k* - *Arri-a-ga*. AEZerako berreraiki daitezkeen erroen artean, ez dago CVT²¹ motakorik (***bet*, ***sok*...).

Gure aireua, beraz, honako hauxe da: AEZean bi leherkari-serie ziren, baina hasperendunena, */t^h k^h/, bestea hasperengabeena, */b̥ d̥ ġ/. Eta euren antolaketa sintagmatikoa hauxe zen:

--	t ^h -	k ^h -	
	-ϕ	-ϕ	-ϕ
b̥-	d̥-	ġ-	

4.6. Hasperena

Badirudi AEM-EZean bi kontsonante hasperendun dituzten ahoskaretan, lehena disimilatuz joan dela. Hau konposatuetan hauteman daiteke (*hil* + *herri* > *ilherrri*), baina baita jatorrizko hitz disilabikoen erkaketan ere. Adibidez, *handi-k* hasperena erakusten du hasperena duten euskalkietan. Aitzitik, *ak(h)er*-ek ez du inoiz hasperenik hitz-hasieran, Lakarrak (2002) proposaturiko etimologiaren arabera, hots < **han-k^her*, *han-di*-ren lehen osagai berbera dugun arren. Zer dela eta jokaera ezberdin hau? Gure ustez, zenbait euskalkitan *handi-k* hasperena mantendu du, bere egiturarik zaharrenean –hau da, AEZean, semantika analitikoki interpretatzen zen garaian– hasperen bakarra zuelako (AEZ. **han-di*). Horrexegatik ez da disimilaziorik gertatu. *Ak(h)er*-en ordea AEZ. **han-k^her*-etik dator edo etor daiteke, non bigarren hasperenak kasu guztietan lehena disimilatu duen. Honek guztiak Lakarra-

¹⁸ Lakarrak (ahozk. kom.) proposaturikoa. Bertsua gerta liteke beste kasu hauetan: *akats* < **ka-kats* eta *okots* < **ko-kots*. Ik. Martínez Areta (2006).

¹⁹ Ik. Lakarra (2004a) eta Martínez Areta (2006).

²⁰ D = Leherkari ahostuna.

²¹ T = Leherkaria.

ren teoriaren alde dihardu, bi kasuetan CVC erro bat izango baikenuke (*han), bestelako azalpenen arabera bokalez hasiko litzatekeena (*an).

Disimilazio-prozesu hau geldi-geldia izan bide da. Gure aburuz, oro har honako era honetan gertatu behar izan du. AEZean, konposatu disilabikoak analitikoki interpretatzen zirela –hots, [_ - _]–, bi silaben hasierak hasperena izan zezakeen ala ez. AEMan, lexikalizazio disilabikoak gertatu zirenean, [h_ - h _]²² egiturako konposatuen silaba protonikoan zegoen lehen hasperena disimilatzen hasi zen, > [Ø_ h _]. Ziurrenik arau hau ez zen egonkorra, eta bakarrik prozesu luze baten ondorioz bihurtu zen erregular. Hurchek (1988: 125 eta hh.) erakutsi legez, hasperenketa eta des-hasperenketa zenbait faktoreren menpe buru daitezke, hala nola testuinguru fonetikoa, dialektoa, hiztuna edo maila estilistikoa, eta menpekotasun hauek hain izan daitezke bortitzak, ezen hasperenari dagokionean lege fonetikoaren baliogarritasuna –behintzat, beste parametro fonetikoekin baliogarri den zentzuan– esutasunean jar dezakeen.

[h_ - h _] > [Ø_ h _] aldaketa burutu ahala, [Ø_ h _] egitura lexikotan barrena gehitu eta azkenean horrelako egitura bat izan zezaketen erro guztietara –hau da, bigarren osagai hasperengarri bateko erro guztietara– hedatu zen, baita ozenez hasitako bigarren silabak zituztenetara ere (ek. *unhe, olho*), edota hiatoa apurtzen zuten testuinguruetara (ek. *goihen*).

Honela orokortu zen, geure aburuz, hasperena bigarren silaban, beranduago bi silaba baino gehiagoko erroetara igaro zitekeelarik. Laburbilduz, AEZean hasperena ezaugarri paradigmaticoa zen, AEM-EZean sintagmatiko edo testuinguruaren araberrako bilakatu doan bitartean. Funtsezkoan, azalpen hau Igartua (2002)-rekin bat dator.

Ondorioa da AEZak hasperena bazuela. Alde batetik, */t^h k^h/ leherkariaren ezaugarri bereizgarri bat zen, eta bestetik */h/ fonema –hasperen hutsa– zegoen. CVC erroetan, hasperena C₁ -ean bakarrik ager zitekeen:

h- -Ø

4.7. Inbentarioa eta balioespena

Orain arteko datuak bilduz, honako gutxieneko inbentario kontsonantiko hau proposa dezakegu Mitxelenaren EZ baino zaharragoa den AEZerako:

--	/t ^h /	/k ^h /	
/b ^o /	/d ^o /	/g ^o /	
			/h/
	/s/ - /s/		
	/n/		
	/l/		
	/r/		

²² Kasu honetan /h- k hasperena orokorrean esan nahi du. Hau da, hasperena izan zezakeen edozein segmentu. Gure teoriar, AEZean honako hauek: */t^h/, */k^h/ eta */h/ bera.

Eta CVC erroen barnean, fonema bakoitzaren agerpen sintagmatikoa hauxe izango litzateke:

--	t ^h -	k ^h -
	-Ø	-Ø
b̥-	d̥-	g̥-
	h-	-Ø
	s-	-s
	z-	-z
	(n-)	-n
	(l-)	-l
	Ø-	-r

Esan bezala, bigarren graduko berreraiketa hau –beste berreraiketa baten berreraiketa delarik– gutxienekoa da. Gure asmoa ez da garai baterako sistema bat kategorikoki postulatzea, sistema edo inbentario batean marraztatu ditugun prozesu estrukturalak irudikatzea baizik. Ziurrenik, prozesu hauen alboan beste batzuk ere izango ziren, berreraiketa honetan irudikatuta geratu ez direnak, dela zantzurik ez dutelako utzi, dela gu ez garelako somatzeko gai izan.

Guk berreraikitako sistemak 11 kontsonante ditu. Hauen alboan 5 bokal postulatzen baldin baditugu –gai honek bere gorabeherak baditu ere (ik. Larkarra 2005 eta 5. atala)– guztira 16 fonema lirategi. Nahiz eta Trasken sistemarekin alderaturik sistema honek hiru fonema gehiago izan, fonemen kopurua oraindik oso murrizta da. UPSIDeko 317 hizkuntzetan 28-k bakarrik dituzte 20 baino fonema gutxiago. Hauen artean, inbentariorik murriztenak 11 fonema dituzten rotakas eta mura hizkuntzenak dira.

Baina, hain muturreko fonema-murriztasun bat gertagaitza bada ere, gure sistema Maddiesonek (1984) fonema gutxiko hizkuntzei egotzen dizkien bestelako ezaugarriari ondo moldatzen zaie. UPSIDeko fonema gutxieneko 57 hizkuntzen artean, esaterako, /f/ fonema %15,8koetan dago, laginketaren hizkuntza guztien artean %42,1ekoetan dagoelarik. Proporzio berdintsua aurkitzen dugu /R/ fonemari dagokionean (%17,5 eta %46,1, hurrenez hurren). Maddieson-ek (1984: 9-13) adierazten dituen sistema fonologikoen taimainaren eta estrukturaren arteko harremenei buruzko behaketak ere funtsean gure sistemari ondo dagozkio, baina badira hain ederki moldatzen ez zaizkion beste zenbait. Maddieson-en (1984: 11) arabera, adibidez, gure sistematan falta den /p/ fonema²³ sarriago agertzen da fonema gutxieneko 57 sistematan (%89,5eko kasuetan) 317 hizkuntzen orokortasunean baino (%82,6ko kasuetan). Portzentaiaren ezberdintasuna, dena den, ez da /p/-ren falta fonema askotako sistemekin lotzeko bezain esanguratsua. Ustez gure sistemaren aurka diharduen beste gertaera bat –eta honek serioagoa dirudi– ho-

²³ Honekin leherkari ezpainkari bortitza esan nahi du, fonazio-mota zein-nahi delarik ere.

nako hauxe dugu: /b/ eta /g/²⁴ askoz ere urriagoak dira fonema gutxieneko 57 sistemetan 317 hizkuntzen orokortasunean baino. Hala nola, /b/ lehen taldeko %45,6ko kasuetan eta bigarren taldeko %62,8koetan agertzen da; /g/-ren hurrenez hurreneko portzentailak %42,1 eta %55,2 dira. Azpimarratu nahiko genuke eragozpen honi dagokionean ez dela inporta oposaketa ahos-tun/ahoskabe ala hasperendun/hasperengabe izatea, Maddieson-ek ez baitu fonazio-mota zehazten.

/m/-ren falta, halaber, guztiz bitxia da, baina fonema honen faltaren urritasuna ez dago sistemaren tamainarekin lotuta, fonema gutxieneko 57 hizkuntzetako %94,7koetan eta 317 hizkuntzetako %94,3koetan agertzen delarik.

Norberak datu hauek nahi duen moduan azaldu ahalko ditu. Guk aurkeztu ditugu, nolabait gure analisisan zintzo jokatzeko eta gure buruari iruzkurak ez egiteko. Baina, oro har, hizkuntzalaritza historikoaren printzipioetariko batera murriztu gara: barneko argudiaketak tipologikoen gainetik nagusitzen dira. Fonema gutxiko sistemetan /b/ eta /g/ ez izateko joera badago ere, eta edozein sistematan /m/ ia beti bada ere, euskararen barneko erkaketa etimologikoak /b/ eta /g/ baztertzea eta /m/ postulatzea zilegiztatzen ez digun bitartean, /b/ eta /g/ sisteman sartu eta /m/ kanpoan utzi beharko ditugu.

Gainera, baliteke hauetariko zenbait portzentaia bestelako faktoreek, esaterako faktore arealek, desitxuratuta izatea, honelako laginketetan batzuetan eskualde bereko hizkuntzetan ezaugarri bera agertzeak erabateko emaitzan ezaugarri hori handietsita egotea ekar dezakeelarik. Hobe dugu Maddieson-ek (1984: 10) burutzen duena bezalako gogoeta orokorrakoak aintzat hartzea: “We may formulate these more cautiously in the following way: a smaller inventory has a greater probability of including a given common segment than a larger one, and a larger inventory has a greater probability of including an unusual segment type than a smaller one”. Hortaz, fonema gutxiko sistemetan espero daitekeena fonema tipologikoki markatuen falta da, eta gurean hau bete egiten da.

Gainerakoan, gure sistema fonologikoki arrunt samarra eta oso orekatua da, eta oro har fonema gutxiko nahiz fonema kontsonantiko gutxiko sistema batetik espero daitekeenetik nahikoa gertu dago.

5. AMAIERAKOA

Datozen urteotan izan litezkeen azterketei begira, Lakarra (1995)-etik urratu bideek oraindik hedadura franko ekoiz ditzaketelakoan gaude. Esan bezala, artikulu honetan sabaikariak alderatu ditugu. Martínez Areta (2006) lanean arakatu ditugu, baina gure aieruek nolabait eskema osatu besterik ez dute helburu. Sabaikariei buruz Oñederraren (1990) lan bikaina dugu, baina euskararen baliabide expresibo guztiei buruzko ikerketa bat egiteke dago.

Halaber, azken urteotan (ik. bereziki Lakarra 2005) Lakarrak aditzera eman du bokalen azterketa ere emankor samarra izan litekeela. Donegan & Stampe (1983)-an eta tipologia holistikoko beste zenbait lanetan oinarrituz,

²⁴ Berrero, fonazio-mota zein-nahi delarik ere.

AEZ bezalako hizkuntza isolatzaile batetik AEM bezalako beste eranskor baterako igarotze-prozesuetan zein hauekin lotutako bokal-harmoniaren prozesuetan normalean bokal-inbentarioak murrizten direlakoan, Lakarrak iradoki du AEZak bost baino bokal gehiago izan zitzakeela.

Besteak beste bi bide hauetan sakonduz, baliteke guk proposatu sistemaren hutsunerik nagusiari nolabaiteko konponbidea aurkitzea, bai expresibitatearen sistema naro batek bai bokal-sistema ugariago batek hain inbentario murrizt baten ezintasun funtzionalak neurri batean arin bailitzakete.

BIBLIOGRAFÍA

- ALPHER, B., 1994, "Yir-Yiront ideophones", en Hinton, Nichols, Ohala (arg.), 161-177.
- ARTIAGAGOITIA, X., GOENAGA, P., LAKARRA, J. A. (arg.), 2002, *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. De Rijk, ASJU-ren Gehigarriak* 44, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BAKRÓ-NAGY, M. S., 1992, *Proto-Phonotactics. Phonotactic Investigation of the PU and PFU Consonant System*, Wiesbaden, Harrassowitz Verlag.
- BLUST, 1988, "Beyond the morpheme: Austronesian root theory and related matters", in McGin (arg.), 3-90.
- CHILDS, G. T., 1994, "African ideophones", in Hinton, Nichols, Ohala (arg.), 178-204.
- DONEGAN, P. J. & STAMPE, D., 1983, "Rhythm and the holistic organization of language structure", in J. Richardson et alii (arg.), 337-353.
- FRANCO, J. & LANDA, A. (arg.), 1999, *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*, Amsterdam, John Benjamins.
- GÓMEZ, R., 1994, "Euskal aditz morfologia eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?", in Orpustan, J. B. (arg.), 93-114.
- & SAINZ, K., 1995, "On the Origin of the Finite Forms of the Basque Verb", in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 235-274.
- HAMANO, S., 1998, *The Sound-Symbolic System of Japanese* (Studies in Japanese Linguistics, 10), California, CSLI Publications.
- HINTON, L., NICHOLS, J., OHALA, J. J. (arg.), 1994, *Sound Symbolism*, Cambridge University Press.
- HUALDE, J. I., 1993, "On the historical origin of Basque accentuation", *Diachronica* 10, 13-50.
- , 1999, "Pre-Basque Plosives", en Franco, J. & Landa, A. (arg.), 77-104.
- HUALDE, J. I., LAKARRA, J. A., TRASK, R. L. (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam, John Benjamins.
- HURCH, B., 1988, *Über Aspiration. Ein Kapitel aus der natürlichen Phonologie*, Tübingen, Gunter Narr Verlag.
- IGARTUA, I., 2002, "Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik", in Artiagoitia, Goenaga, Lakarra (arg.), 367-389.
- LAKARRA, J. A., 1995, "Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root", in Hualde, Lakarra, Trask (arg.), 189-206.
- , 1998, "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.
- , 2002, "Etymologiae (proto)uasconicae LXV", in Artiagoitia, Goenaga, Lakarra (arg.), 425-442.
- , 2004a, "Cuernos, pellejos, caballos y otras anécdotas: Notas sobre la reconstrucción de algunas C- y V- iniciales y de la gramática y morfología protovasca antigua" [ASJU-n argitaratzeko].
- , 2004b, "**TVTV eta haren lagunez: So bat EM-ko eta AE-ko erro sail bisilaboez" [ASJU-ren Gehigarrietan argitaratzeko].
- , 2005, "Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto)vasco", *Palaeohispanica* 5, 407-470.
- , 2006, "Jaun eta jabe, jaio eta berio, joan eta beste: etimologiaz eta aditz-morfologia zaharraz (Hitz hasierez II)" [Andolin Eguzkitzaren omenaldian argitaratzeko].

- LAPOLLA, R. J., 1994, "An experimental investigation into phonetic symbolism as it relates to Mandarin Chinese", in Hinton, Nichols, Ohala (arg.), 130-147.
- MADDIESON, I., 1984, *Patterns of Sounds*, Cambridge University Press.
- MARTINET, A., 1950, "De la sonorisation des occlusives initiales en basque", *Word* 6, 224-233.
- , 1955, "La reconstrucción estructural: las oclusivas del vasco" [in Martinet 1974, 524-550].
- , 1974 (1. argitalpena: 1955), *Economía de los cambios fonéticos*, Madrid, Gredos.
- MARTÍNEZ ARETA, M., 2003, "Hitz-konposakera euskaraz eta aitzin-euskaraz" [ASJU-n argitaratzeko].
- , 2006, *El consonantismo proto-vasco*, EHU-n aurkeztu tesi doktora, prestatzen.
- MCGIN, R. (arg.), 1988, *Studies in Austronesian Linguistics*, Ohio University Center for International Studies, Southeast Asia Series Number 76, Atenas, Ohio.
- MELENA, J. L. (arg.), 1985, *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Vitoria-Gasteiz, UPV-EHU.
- MITXELENA, K., 1957, "Las antiguas consonantes vascas" [in *SHLV*, 166-189].
- , 1977 [1. argitalpena: 1961], *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- , 1990 [1. argitalpena: 1963], *Lenguas y protolenguas*, ASJU-ren Gehigarriak 20, Donostia.
- , 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi [in *SHLV*, 1-73].
- , 1974, "El elemento latino-románico en la lengua vasca" [in *PT*, 195-219].
- , 1981, "Lengua común y dialectos vascos" [in *PT*, 35-55].
- , 1987, *Palabras y textos [PT]*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU.
- , 1988, *Sobre historia de la lengua vasca [SHLV]*, ASJU-ren Gehigarriak 10, Donostia.
- OÑEDERRA, L., 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa*, UPV/EHU.
- ORPUSTAN, J. B., (arg.), 1994, *Le basque parmi les autres langues: influences comparaisons*, Bordeaux-Bayona, Univ. De Bordeaux III & CNRS.
- RHODES, R., 1994, "Aural images", in Hinton, Nichols, Ohala (arg.), 276-292.
- RICHARDSON, J., et alii (arg.), 1983, *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology and Syntax*, Chicago Linguistic Society, University of Chicago.
- TRASK, R. L., 1985, "On the reconstruction of pre-Basque phonology", in Melena (arg.), 885-891.
- , 1997, *The History of Basque*, Londres, Routledge.

LABURPENA

Aitzin-euskararen kontsonantismoa

Lan honetan Koldo Mitxelenaren euskara zaharren berreraiketa fonologikotik abiatuz, 'Aitzin-Euskara Zaharra' izenda dezakegun eta Mitxelenarena baino garai zaharrago bati dagokion hizkuntzaren aitzin-sistema fonologikoa berreraikitzen saiatzen gara. Horretarako, Joseba Lakarrak azken urteotan euskararen erro zahar disilabikoen azterketa morfo-fonologiko zein etimologikoan burutu dituen aurrerakuntzetan oinarritzen gara. Alde batetik, erro disilabiko horiek garai zaharrago batean bi erro monosilabikoez osaturiko egitura perifrastikoak izan zirela onartzen dugu. Beste alde batetik, azterketa honek barne-berreraiketa fonologikorako bidea urratzen duelakoan gaude, elementu monosilabiko hauek testuinguru fonetikoaren arabera erakusten dituzten formen arteko txandaketen erkaketak forma zaharrak nolakoak ziren zehazten lagun diezagukeelarik.

RESUMEN

El consonantismo proto-vasco

En este trabajo, partiendo de la reconstrucción que Michelena postula para el vasco antiguo, tratamos de reconstruir el sistema fonológico antiguo de esta misma lengua pero correspondiente a una época anterior a la que reconstruye Michelena y que podemos denominar 'Proto-Vasco Antiguo'. Para ello, nos basamos en los adelantos que Joseba Lakarra ha realizado en los últimos años en torno al análisis tanto morfo-fonológico como etimológico de las raíces antiguas disilábicas del euskera. Por un lado, admitimos que esas raíces

disilábicas fueron, en una época antigua, estructuras perifrásticas compuestas de dos raíces diferentes. Por otro, creemos que este análisis abre nuevas expectativas para la reconstrucción fonológica interna, en tanto que la comparación entre las alternancias de las formas que presentan estos elementos monosilábicos según el contexto fonético nos puede ayudar a dilucidar cuál pudo ser la forma original.

RÉSUMÉ

Le consonantisme de la langue basque ancienne

En partant de la reconstruction que Michelena préconise pour la langue basque ancienne, nous essayons de refaire dans cet article le système phonologique ancien de cette même langue, mais qui correspond à un époque précédente à celle que Michelena reconstruit et que nous pouvons appeler « Proto-Basque Ancien ». Pour cela, nous nous sommes basés sur les découvertes que Joseba Lakarra a faites, au cours de ces dernières années, sur l'analyse, aussi bien morphophonologique, qu'étymologique des racines anciennes dissyllabiques du basque. D'une part, nous admettons que ces racines dissyllabiques ont été, autrefois, des structures périphrastiques composées de deux racines différentes. D'autre part, nous croyons que cette analyse ouvre de nouvelles attentes pour la reconstruction phonologique interne, dans la mesure où la comparaison entre les alternatives des formes présentées par ces deux éléments monosyllabiques, d'après le contexte phonétique, peut nous aider à en connaître la forme originelle.

ABSTRACT

The consonantism of old Basque

In this article, which is based on the reconstruction which Michelena forwarded for old Basque, we attempt to reconstruct the old phonological system of this very language, but referring to a previous period to the one Michelena reconstructs and which we can call "Proto-Old Basque". To this end, we base ourselves on the progress which Joseba Lakarra has made over recent years regarding the morpho-phonological and etymological analysis of the old disyllabic roots of the Basque language. On the one hand, we accept that these disyllabic roots were, in an ancient epoch, compound periphrastic structures from two different roots. We also believe, however, that this analysis opens up new horizons for internal phonological reconstruction insofar as comparisons of the alternation of the forms which these monosyllabic elements present according to phonetic context can help us elucidate what may have been the original form.